

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y  
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO  
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA  
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y  
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL  
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Foru Gobernuaren ustez, irakasleen LEP partzialak Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean ezarritako mugak betetzen ditu

*Gogorarazi du Hezkuntza Departamentuak zuhurtziaz eta arduraz jardun zuela estatuak errekurtsorik jarri ahal izatea saihesteko*

Miércoles, 04 de mayo de 2011

Nafarroako Gobernuaren ustez, Foru Erkidegoan onetsi zen irakasleentzako 132 lanposturen lan eskaintza publiko partzialak 2011rako Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean ezarritako jardunekoen berritze tasaren % 30eko muga errespetatu eta betetzen du.

2011rako Estatuko

Aurrekontu Orokorren Legeko 23. artikulua ezartzen duenaren arabera, aurrekontuaren sartuko diren plaza berrien kopurua jardunekoen berritze tasaren % 10ekoa izango da eta lehentasuna duten edo oinarritzeko zerbitzu publikoen jardunean eragiten duten sektore, egiteko eta kategoria profesionaletan pilatuko dira. Halaber, irakasle funtzionarioen lanpostu kopurua zehazteko orduan, agindu horrek % 10etik % 30era igotzen du jardunekoen berritze tasa.

Otsailaren 14ko 11/2011 Foru Dekretuak Nafarroako Foru Erkidegoko Administrazioan unibertsitatekoak ez diren irakasleentzako lan eskaintza publiko partziala onetsi zuen. Dekretu horrek zera dio: "muga hori bete behar dela kontuan izanik, bidezkoa da irakasleentzako 132 lanposturen lan eskaintza publiko partziala onestea, hezkuntza sistemaren beharrezanekin bat etorritik, alaitz azkarren bete behar diren espezialitateetan".

Azaldutakoaren arabera eta 2010ean Nafarroako Foru Erkidegoko Administrazioari langileen artean 471k erretiroa hartu zutela kontuan hartuta, aurreratu den lan eskaintza publikoko irakasleen lanpostu kopurua bete tasaren % 30eko muga errespetatzen du.

**Gobernuak deialdia bertan behera uztearen aurka alegatuko du**

Nafarroako Gobernuaren Aholkularitza Juridikoa LEPren deialdia bertan behera uztearen aurka alegazioa lantzen ari da dagoeneko. Estatuak aurkeztutako errekurtsioan eskatzen da deialdia bertan behera uzteko.



Irakasle talde bat

Foru Gobernuak dioenez, "ezarritako mugaren arabera, jarduneko berritze tasaren % 30eko muga errespetatzen duten irakasleentzako lan eskaintza publikoak Aurrekontuen Legean ezarritakoarekin bat datoz. Izan ere, legeak ez du ezartzen kategoria bakoitza berritu behar denik; horren ordez, lan eskaintza publikoa lehentasuna duten sektore, funtzio eta kategorietan pilatu behar dela jasotzen du".

2010eko urriaren 22ko Bitariko Batzordearen bileran erabaki zena gogorarazi behar da, izan ere, bertan zeuden hiru sindikatuen aldeko botoaren bidez, irakasleentzako 400 lanposturen lan eskaintza publiko bat onetsi zen. Bilera horretan Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzura dauden langileen lan baldintzei buruzko hitzarmena adostu zen 2010 eta 2011rako Administrazioaren eta sindikatuen artean. Hala ere, azkenean, Hezkuntza Departamentuak 132 lanposturen LEP partziala onestea erabaki zuen 2010eko otsailean.

Hezkuntza Departamentuak aurrez adostu zen LEP ez egiteko eman zituen arrazoiaren artean, hain zuzen ere, Estatuko Aurrekontu Orokorraren Legeak ezarritako baldintza zegoen. Departamentuak berak adierazi zuenez, lege horrek zehurtiaz eta arduraz jokatzeko agintzen du, hau da, ezarritako berritzeen mugara egokitzen den LEP partziala egin eta beharizanik berehalakoak eta premiazkoak betetzeko.

Nafarroako Gobernuak espero du Ekonomia Ministerioak, errekurtsioak jartzeko orduan, ez egitea bereizketarik 2011rako irakasleentzako lan eskaintza publikoak onetsi dituzten gainerako erkidegoen artean. Hauek dira beste erkidegoak: Andaluzia (3.796 lanpostu). EAE (1.515), Katalunia (1.245), Gaztela eta León (510), Aragoi (320), Extremadura (241), Balear Uharteak (146), Asturias (118), Valentziako Erkidegoa (110).